





---

# DESGAITASUN FISIKOA DUTEN ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ESKUBIDEEN

---

GIDALIBURUA

---



© elkartean, 2025



EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

---

# DESGAITASUN FISIKOA DUTEN ETA INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ESKUBIDEEN

---

## GIDALIBURUA

---

### AURKIBIDEA

---

ELKARTEAN "BERDINTASUNA LORTZEKO GIZARTEA ERALDATZEN" .....	4
SARRERA .....	6
AURKEZPENA .....	8
GIDALIBURUAREN HELBURUA .....	10
NORENTZAT DA GIDALIBURU HAU? .....	11
ESKUBIDEEN KATALOGOA .....	10
GIZARTE ZERBITZUEN EREMUAN .....	10
EKONOMIAREN EREMUAN .....	16
ETXEBIZITZAREN EREMUAN .....	21
HEZKUNTZAREN EREMUAN .....	25
ENPLEGUAREN EREMUAN .....	28
LAGUNTZEN EREMUAN .....	32
ZERBITZU JURIDIKOEN EREMUAN .....	36
LAGUNTZA PSIKOLOGIKOAREN EREMUAN .....	43
LARRIALDIETAKO ZERBITZUEN EREMUAN .....	47
SEXU-INDARKERIAREN EREMUAN .....	50
I. ERANSKINA ERREFERENTZIAK .....	55
II. ERANSKINA JARDUNBIDE EGOKIAK .....	59




# *elkartean*

Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten  
Pertsonen Elkarte Koordinatzailea da.

**Pertsona guztiak barne hartuko dituen gizartea lortzeko** dihardu lanean; gizarte irisgarria, bidezkoa, ekitatiboa, eta desberdintasunik gabe gure eskubideak gauzatzeko modukoa.

**Desgaitasun fisikoa duten emakume eta gizonen aukera-berdintasuna** defendatzen dugu, eskubide osoko herritarak diren aldetik, gizarte inklusiboaren barruan.

Izan ere, desgaitasuna duten pertsonen inklusiorako lortzen diren aurrerapauso guztiak **herritar guztien onurarako** dira.



## elkartean

EUSKADIKO HIRU LURRALDEETAN DAGO ORDEZKATUTA,  
HURA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEN BIDEZ:



Simón Bolívar plaza 9, behea  
01003 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 225 516

[www.eginez.org](http://www.eginez.org)  
[info@eginez.org](mailto:info@eginez.org)



Ondarreta pasealekua 5 behea  
20018 Donostia  
Tel.: 943 316 770

[www.elkartu.org](http://www.elkartu.org)  
[elkartu@elkartu.org](mailto:elkartu@elkartu.org)



Blas de Otero 63 behea  
48014 Bilbao  
Tel.: 944 053 666

[www.fekoor.com](http://www.fekoor.com)  
[fekoor@fekoor.com](mailto:fekoor@fekoor.com)





# sarrera

Gizarte patriarkal batean bizi gara, eta, askotan, desgaitasuna duten emakumeak eta neskak muturreko zaugarritasun-egoerara eramaten ditu.

## Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 6. artikulua honako hauek aitortu eta bermatzen ditu:

- 1 (...) desgaitasuna duten emakumeek eta neskek bereizkeria-modu ugari dituzte, eta, horri dagokionez, estatuak neurriak hartu behar dituzte giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak bete-betean eta baldintza berdinetan gauzatu ahal izango dituztela ziurtatzeko.
- 2 Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, emakumearen erabateko garapena, aurrerapena eta indartzea ziurtatzeko, asmoa izanik bermeak ezartzea, konbentzio honetan ezarritako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak gauzatu edo baliatzea.

---

Azterketa sakon bat egiten badugu jakiteko desgaitasun fisikoa duten emakumeak indarkeria edo abusuzko ekintza baten biktima direnean zergatik jasaten duten zaugarritasun handiagoa, honako arrazoi hauek identifikatzen dira:

- Desgaitasunarekiko jarrera negatiboak.
- Bazterkeria-, isolamendu- eta pobrezia-egoerak.
- Babes sozialik eza.
- Arreta-zerbitzuak eskuratzeko zailtasuna irisgarritasun-faltagatik.
- Informazio falta.
- Indarkeriaren euskarri kulturala.
- Indarkeria matxistaren biktima izateaz ez jabetzea.
- Sinesgarritasunari buruzko pertzepzio negatiboak.
- Ordaindutako enplegua lortzeko zailtasuna, eta horrek ekar dezakeen mendekotasun ekonomikoa.
- Autonomia pertsonalik eza.

Faktore pertsonal, familiar eta sozial horiek bat egiten dutenez, desgaitasun fisikoa duten emakumeak, batez ere laguntza behar handia eta komunikatzeko zailtasunak dituztenak, indarkeriaren biktima izateko arrisku handienetakoa duten taldeetako bat dira, desgaitasunik ez duten emakumeekin alderatuta; izan ere, desgaitasuna duten emakumeek indarkeriaren biktima izateko arrisku handiagoa dute desgaitasunik ez duten emakumeek baino.

Adibide gisa, eta **2019ko Indarkeria Matxistari buruzko Makroinkesta** erreferentziatzen hartuta, desgaitasuna duten emakumeen % 20,7k bikotekideren baten indarkeria fisiko edo sexuala jasan du, eta desgaitasunik ez duten emakumeen artean, aldiz, ehuneko hori % 13,8koa da; desgaitasuna duten emakumeen % 40,4k bikote barruko indarkeria jasan du, eta desgaitasunik ez duten emakumeen artean, aldiz, ehuneko hori % 31,9koa da.

Nahiz eta jakina den, indarkeria matxista baten aurrean, denok daukagula jarduteko erantzukizuna, hala ere, ikusezintasun handia dago gure errealitatearen ezagutza faltagatik. Beraz, arreta ematen duten profesionalak prestakuntza eta informazio egokia jaso behar dute.



# gidaliburuaren aurkezpena

**Eskubideen Gidaliburu hau** sortzeko arrazoia indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeei zer eskubide dituzten eta zer eskubide eskura ditzaketen jakinarazteko beharra izan da (batzuk zuzeneko eskubideak dira, eta beste eskubide batzuk eskuratzeko eremu horretan eskumena duten administrazioek ezarritako baldintzak bete behar dira). Izan ere, emakume guztiek, desgaitasuna izan ala ez, eskubidea dute informazioa jasotzeko eta baliabideak berdintasunez eskuratzeko, irisgarritasun-irizpideak kontuan hartuta.



Hemen bildu dugun informazioa funtsezkoa da emakumeentzat beraientzat, haien eskubideak ezagutu eta erabiltzen badituzte indarkeriarik gabeko bizitzarako bidea has baitezakete. Era berean, funtsezkoa da hurbilen dituzten pertsonentzat eta laguntza ematen dieten profesionalentzat ere, eskubide horiek ezagutzen badituzte informazioa, aholkularitza eta orientazioa eman baititzakete.

**Gidaliburuan**, indarkeria matxistaren biktima diren desgaitasuna duten emakumeek eskura dituzten eskubide aitortuak jasotzen dira, biktima-izaera egiaztatuta duten ala ez kontuan hartu gabe.



## Nola egiazta daiteke?

*Iturria: Erabakia, 2021eko azaroaren 11koa, Berdintasunerako Arloko Biltzarrena, genero indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzkoa.*

- Genero-indarkeriako delitu batengatik emandako kondena-epai baten bidez.
- Babes-agindu baten bidez edo biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizialen bidez.
- Demandatzailea genero-indarkeriaren biktima den zantzuak daudela adierazten duen Fiskaltzaren txostenaren bidez.
- Administrazio publiko eskuduneko gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen txostenaren bidez.
- Beste edozein tituluren bidez, betiere eskubide eta baliabide bakoitza eskuratzeko aukera arautzen duten xedapen arauemaile sektorialetan aurreikusita badago.

Gidaliburua jardueraremu hauetan banatuta dago:


Gizarte Zerbitzuak  
Dirulaguntzak  
Etxebizitza  
Hezkuntza  
Enplegua  
Bizimodu independentea izateko laguntzak  
Zerbitzu juridikoak  
Laguntza psikologikoa  
Larrialdietako zerbitzuak  
Sexu-indarkeria

Gidaliburu honetan jasotako eskubideez gain, beste batzuk ere badaude desgaitasuna duten emakumeen eskura, betiere desgaitasuna egiaztatuta izanez gero.

Informazio gehiagorako: <https://elkartean.org/pdf/baliabide-gida.pdf>


# Gidaliburuaren helburua

**Gidaliburu** honen helburua da desgaitasun fisikoa duten eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei Euskadin dauden baliabideen berri ematea, baliabide bakoitza eskatzeko bete behar diren baldintzak kontuan hartuta.



# norentzat da gidaliburu hau?

**Gidaliburu** hau indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasun fisikoa eta organikoa duten Euskadiko emakume guztiei zuzenduta dago bereziki, baina erakunde zein administrazio publikoetako arreta-teknikariek erabil dezaketen tresna ere bada.



## **GOGOAN IZAN**

Zure udalerriko edo auzoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakezu, informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskatzeko.

Era berean, desgaitasuna duten pertsonen ordezkari diren **eginaren eginez**, **elkartu** edo **fekoor** elkarteetara jo dezakezu. Behar izanez gero, laguntza emango dizute, eta bizitzen ari zaren egoeran lagungarriak izan daitezkeen baliabideak eskainiko dizkizute.

# eskubideen katalogoa



# gizarte zerbitzuen EREMUAN



Gizarte-zerbitzuek berebiziko garrantzia dute indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta integralean, indarkeria horien berehalako ondorioak arintzeaz gain, epe luzerako prebentzioan eta gizarte bidezkoagoen eta berdintasunezkoagoen sustapenean ere lan egiten baitute.

Gizarte-zerbitzuen helburu nagusia da emakume guztiak, beren aniztasuna kontuan hartuta, gizarteratzea eta haien autonomia bultzatzea, eta sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-funtzioak betetzen dituzte, zerbitzuak eta/edo prestazioak emanez.

Emakumeen artean indarkeria matxistaren bizipena areagotzen duten eta, gainera, zerbitzu horiek eskuratzea zailtzen duten faktoreak (desgaitasuna, adibidez) elkartzen direnean, gizarte-zerbitzuen lana are garrantzitsuagoa bihurtzen da, Gidaliburu honetan jasotzen diren gainerako eskubideetako edozein gauzatu ahal izateko atea baitira.



## ELKARTEAN-EN JARRERA

Kontuan hartu beharra dago desgaitasuna duten emakumeen errealitate berezia eta premiak indarkeriaren biktima diren emakumeen prebentzio-, laguntza-, arreta-, kaltearen erreparazio- eta babes-politikan, kontuan hartuta emakumeek jasaten dituzten askotariko indarkeria-motak eta izan ditzaketen erasotzaileak.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura ditzaketen **gizarte-baliabideak** ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.

## → **INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (SATEVI) 900 840 111**

Telefono bidezko zerbitzu espezializatua, indarkeria matxistaren biktima diren emakume guztiei arreta ematen diena, baita senideei edo hurbilekoei eta informazioa eskatzen duten profesionaleri ere.

Berehalako zerbitzua da, anonimoa, konfidentziala eta doakoa, eta ez du arrastorik uzten telefono-fakturan.

✳ Botoi horri esker, entzumen- eta/edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonak eta 900 840 111ko profesionalak komunikatzeko aukera dute, bideo-interpretazioko kanal bat erabiliz, zeinu-mintzairako interpreteen bidez.



**Eusko Jaurlaritzza**

<https://www.euskadi.eus/informazioa/genero-indarkeriaren-biktima-diren-emakumeentzako-zerbitzu-espezializatua/web01-a2gizar/eu/>

## → **INFORMAZIO, BALORAZIO, DIAGNOSTIKO ETA ORIENTAZIO ZERBITZUA**

Informazioa ematen duen zerbitzua, beharren hasierako balorazioa (eta, hala badagokio, jarraipenaren balorazioa), hasierako diagnostiko soziala, orientazioa eta gizarte-laguntza ematen die herritar guztiei, adin mugarik gabe eta inolako baldintzarik gabe.



**Udalak** (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak)

## → **INDARKERIA MATXISTAK ERAGINDAKO BABESGABETA- SUNA BALORATZEKO ZERBITZUA, DIAGNOSTIKO SOZIAL ESPEZIALIZATUA ETA ORIENTAZIOA**

Emakumeen aurkako indarkeria matxistak eragindako babesgabetasun-maila identifikatzea errazten du, eta, hala badagokio, haien beharrei hobekien erantzuten dieten zerbitzu eta/edo prestazio ekonomikora bideratzen ditu, betiere zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen badituzte.



**Bizkaiko Foru Aldundia**

[https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12470?Tem\\_Plid=7995045](https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12470?Tem_Plid=7995045)



- Ez da baldintza administratiborik behar eskuratzeko.
- Indarkeria matxistak eragindako babesgabetasun-egoera aitortzea zerbitzu espezializatuak eskuratzeko; zuzenean bideratuak izan diren emakumeek ez dute urrats hau bete behar.

## → ARRETA PSIKOSOZIAL ANBULATORIOA

Diziplina anitzeko esku-hartze mota bat da. Arretaren hartzaileak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak dira, egoitza-baliabide batean sartu nahi ez dutenak edo haietako batean egonaldia amaitu berri dutenak, eta beren beharrietara ego-  
kitutako jarraipen anbulatorioa behar dutenak.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizartepolitika/kolektiboak/indarkeria-matxistaren-biktimak>

## → GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA

Gizarte- eta hezkuntza-laguntzako eta/edo laguntza psikosozialeko prestazioen multzoa, banakakoa, familiakoa eta taldekoa. Prestazioak familiaren etxean nahiz ingurune komunitarioan gara daitezke, pertsonak gaitasun pertsonalak, familia-koak edo taldekoak eskuratu eta gara ditzaten, modu autonomoan moldatzeko, gizarteratzeko eta familian eta komunitatean bizikidetzatza egokia izateko.



**Udalak**

<https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-mendekotasuna-mendekotasun-arriskua/web01-a2gizar/eu/>



- Bazterkeria-arriskuan edo mendekotasun-arriskuan dauden pertsonak; edo adingabeen kasuan, babesgabetasun-arrisku arina edo moderatua duten adingabeak.
- Ez dago adin-mugarik.
- Hezkuntza-laguntza eta/edo laguntza psikosoziala behar izatea familia-bizikidetzatza hobetzeko, familiako kideen arreta eta zaintzarako trebetasunak hobetzeko eta/edo autonomiaz moldatzea errazteko edo ahalbidetzeko.

\* *Baliabide hori ez da espezifiko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ar-  
lorako, baina behar den laguntza eman dezake familia-bizikidetzatza hobetu behar  
denean, arreta- eta zaintza-trebetasunak hobetzeko eta familia-unitatearen fun-  
tzionamendu autonomoa errazteko.*

## → ARLO KOMUNITARIOKO ESKU HARTZE PSIKOSOZIALEKO ETA/EDO PSIKOEDUKATIBOKO ZERBITZUA

Babesik gabe dauden indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta, hala ba-  
dagokio, haien bizikidetzatza-unitateei gizarte- eta hezkuntza-laguntza eta/edo laguntza  
psikosoziala emateko harreman-prestazioen multzoa.



**Bizkaiko Foru Aldundia**

<https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12399>



→ Indarkeria matxistak eragindako babesgabetasun-egoera aldeztu aurretik baloratua izatea eta diagnostiko sozial espezializatuaren zerbitzura bideratzea.

→ Ostaturik behar izanez gero,

- segurtasun-baldintzetan bizi ahal izateko beste etxebizitzarik ez izatea edo berehala eduki ezin izatea.
- Zerbitzuaren funtzionamendua larriki nahas dezakeen jokabide edo portaerarik ez izatea.
- Gaixotasun infektokutsakorra eta/edo gaixotasun mentala izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.

\* Babesgabetasun-egoeran dauden emakumeek eta bakarrik eta haurdun dauden emakumeek edo beren kargura seme-alaba adingabeak dituzten emakumeek eskuratu ahal izango dute zerbitzua, babesgabetasun-arrisku larria dutenak, baliabide pertsonalik gabe, laguntza soziofamiliarrik eta bizitokirik gabe daudenak, baldin eta laguntza intentsiboa behar badute, batez ere gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen arloan eta esku-hartze psikosozialen arloan oinarritutako laguntza.



## **INDARKERIA MATXISTAREN ETA SEXU-ERASOEN EGOEREI ARRETA PSIKOSOSIALA, GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ARRETA ETA ARRETA SOZIOJURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA - GARAITU**

Arreta anbulatorioko baliabide espezializatu eta integrala da, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistako eta sexu-askatasunaren aurkako balizko ekintzetako egoerei helduko die. Emakumeek, haien seme-alabek eta beren ardurapean dauden mende-ko beste pertsona batzuek pairatzen dituzte egoera horiek.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

<https://edefundazioa.org/zerbitzuak/garaitu-zerbitzu-gipuzkoa/?lang=eu>

\* Indarkeria matxistaren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima diren emakumeak eta 6 urtetik beherakoak eskuratu ahal izango dute. Gainera, biktimaren edo biktimen bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen ere eskuratu ahal izango dute zerbitzua, bereziki mendekotasuna duten edo mendekotasuna izateko-arriskuan dauden helduak direnean.



# ekonomiaren

## EREMUAN

Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakumeen egoera ekonomikoa larriagotu egiten da baliabide ekonomikorik ez dutelako edo baliabide ekonomiko nahikorik ez dutelako.



Gehienetan, dituzten baliabide horiek kotizazio gabeko pentsioetatik datoz, besteak beste, bi arrazoi nagusirengatik:

- Dituzten desgaitasun-maila altuak.
- Oso gutxitan egin ahal izan dute lan, eta horregatik ezin izan dute kotizaziopeko pentsiorik jaso.

Gainera, askotan, jasotzen dituzten pentsioak ez dituzte haiek administratzen, eta horrek babesgabetasun handiagoa eta aukera gutxiago ematen dizkie bizitzen ari diren indarkeriazko bizitza horretatik irtetea erraztuko duten diru-sarrerak lortzeko.

Egoera larriagotu egiten da desgaitasuna izan arren kotizazio gabeko pentsioa izateko aukerarik ere izan ez badute, desgaitasuna % 65era iristen ez delako. Eta, batez ere, bizi duten indarkeria-egoera egiaztatzeko baldintzak betetzerakoan.



### ELKARTEAN-EN JARRERA

Pentsio eta laguntza ekonomikoen sistema bat ziurtatzea, bidezkoa eta ekitatiboa izango dena, desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuko duena, indarkeria matxistaren biktima diren desgaitasuna duten emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza egin ahal izan dezaten bizimodu independentearen hasieratik.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura ditzaketen **baliabide ekonomikoak** ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.

## → **ORDAINKETA BAKARREKO PRESTAZIO EKONOMIKOA**

Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten eta bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza ekonomiko **espezifiko**a. Helburua da diru-sarrerarik eza aldi baterako arintzen laguntzea, aldi horretan emakumeak bere egoera egonkortu dezan eta dagozkion pentsioak edo prestazio ekonomikoak izapidetu ditzan.



### **Eusko Jaurlaritza**

[https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/genero\\_indarkeria\\_biktimak\\_laguntzak/web01-a2gizar/eu/](https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/genero_indarkeria_biktimak_laguntzak/web01-a2gizar/eu/)



- Genero-indarkeriaren biktima izatearen egiaztagiri bat edukitzea indarrean.
- Lanik gabe egotea, lan-kontraturik ez izatea.
- Diru-sarreraren muga ekonomiko ez gainditzea, hau da, indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldataren (LGS) % 75, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kontuan hartu gabe.
- Laguntza hori lehenago jaso ez izana.
- Erasotzailearekin edo ustezko erasotzailearekin bikote-harremana behin betiko amaituta izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan benetan bizi izana, gutxienez 6 hilabete jarraian.
- Zorrik ez izatea, ez dagozkion foru-ogasunarekin, ez Gizarte Segurantzarekin.

- \* *Ordainketa bakarrekoa da, eta bateraezina helburu bererako beste edozein laguntza publiko zein pribaturekin.*
- \* *Bateragarria da beste prestazio ekonomiko batzuekin, eta horiek diru-sarrera gisa zenbatuko dira, eskatutako diru-sarreraren maila zehazteko.*
- \* *% 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta izanez gero, dagokizun zenbatekoa 12 hilabeteko langabezia-sorospenaren bestekoa izango da, eta ez 6 hilabeteko sorospenaren bestekoa.*
- \* *Gainera, familia-erantzukizunak badituzu eta horiek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta badute, dagokizun zenbatekoa 24 hilabeteko sorospenaren bestekoa izan daiteke.*

## → DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DSBE)

Baliabide nahikorik ez duten pertsonen eta familien oinarrizko premiei erantzuteko hileko prestazio ekonomikoa, edo, baliabide horiek izanda ere, beren oinarrizko premiak betetzeko nahikoak ez direnean jasotzen duten prestazio ekonomikoa, eta lan-irteera bat aurkitzen laguntzen diena.



### Lanbide



- Zaurgarritasun ekonomikoa izatea. Hori egiaztatzeko ondare garbia, aktibo ez-sozietarioak eta diru-sarreraren eta errenten maila hartzen dira kontuan.
- Ez da indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeentzako prestazio espezifikoak. Baina jasotzeko aukera izanez gero,
  - Genero-indarkeriaren biktimaren egiaztatzea izan behar duzu.
  - Ez da beharrezkoa izango bizikidetzaren unitatea gutxienez duela urtebete osatu izana.
  - Nahikoa da 18 urte izatearekin.
  - Ez dizute antzintasunik eskatuko errolan.

- \* Prestazio hori jaso ahal izango duzu, bai genero-indarkeriaren biktima bazara, bai etxeko indarkeriaren edo gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima bazara.
- \* Indarkeria-egoeraren ondorioz zure ohiko bizilekua utzi eta senideen, lagunaren edo beste pertsona batzuen etxebizitzara joan behar izan baduzu bizitzera, zure bizikidetzaren unitatea salbuespenezkotzat hartuko da, eta, beraz, beste pertsona horien diru-sarrerak ez dira zure diru-sarreratzat hartuko.
- \* Genero-indarkeriagatik beste laguntza bat kobratzen baduzu, jasotako zenbatekoa ez da diru-sarrera gisa zenbatuko DSBEan.
- \* DSBEaren prestazioaren titularra izateak aukera emango dizu zure inklusio-prozesuan genero-indarkeriako tutore baten laguntza pertsonalizatua jasotzeko.
- \* Aldi baterako harrerako etxe edo zentroetan bizi bazara, betiere hori lortzeko eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzu, DSBEa jasotzeko eskubidea izango duzu, nahiz eta zure oinarrizko mantenua etxe edo zentro horien kontura izan.
- \* Genero-indarkeriaren biktima izanez gero, oinarrizko zenbatekoaren % 25a gehituko zaio prestazio horri. Hala ere, kontuan izan osagarri hori ez dela bate-ragarria desgaitasunaren prestazioarekin edo pentsiodunaren prestazioarekin, eta, beraz, kasu bakoitzean mesedegarriena aplikatuko dela.

## → BIZITZEKO GUTXIENeko DIRU-SARRERA

Oinarrizko premiak betetzeko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasateko duten arriskua prebenitzeko prestazioa.

Onuradunen gizarte-inklusio eta lan-inklusioko aukerak benetan hobetzea bermatu nahi du.



### Lanbide



- Adinez nagusia izatea.
- Zaugarritasun ekonomikoa izatea. Hori egiaztatzeko ondare garbia, aktibo ez-sozietarioak eta diru-sarreraren eta errenten maila hartzen dira kontuan.
- Ez da indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeentzako prestazio espezifikoak. Baina jasotzeko aukera izanez gero:
  - Genero-indarkeriaren biktimaren egiaztageria izan behar duzu.
  - Ez da beharrezkoa izango bizikidetzaren unitatea gutxienez duela urtebete osatu izana.
  - Nahikoa da 18 urte izatearekin.
  - Ez dizute antzintasunik eskatuko errolan.

- \* Prestazio hori jaso ahal izango duzu, bai genero-indarkeriaren biktima bazara, bai etxeko indarkeriaren edo gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima bazara.
- \* Indarkeria-egoeraren ondorioz zure ohiko bizilekua utzi eta senideen, lagunaren edo beste pertsona batzuen etxebizitzara joan behar izan baduzu bizitzera, zure bizikidetzaren unitatea salbuespenezkotzat hartuko da, eta, beraz, beste pertsona horien diru-sarrerak ez dira zure diru-sarreratzat hartuko.
- \* Prestazioaren titularra izateak aukera emango dizu zure inklusio-prozesuan genero-indarkeriako tutore baten laguntza pertsonalizatua jasotzeko.
- \* Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin osa daiteke.

## → GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA

Aldizkakoa ez den prestazio ekonomikoa, gastu zehatzak ordaintzeko baliabide nahikorik ez duten bizikidetz-unitate bateko pertsonentzat.

Laguntzarekin ordaindu nahi diren gastu espezifikoaren benetako zenbatekoaren ehuneko jakin bat jasoko da.



### Udalak

[https://www.euskadi.eus/diru\\_laguntza/2024/gizarte-larrialdietarako-laguntzak-gll-2024/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2024/gizarte-larrialdietarako-laguntzak-gll-2024/web01-tramite/eu/)



- Laguntza eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan bizitzea.
- Eskabidea aurkeztu baino gutxienez sei hilabete lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea. Aldez aurreko gutxieneko epe hori betetzen ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon beharko du eta bertan benetan bizi izan beharko du aurreko hamar urteetatik bost urtez jarraian.
- Helburu bererako beste prestaziorik jaso ez izana edozein administrazio publiko edo pribatutatik.
- Ezarritako diru-sarreraren baremoa ez gainditzea.
- Ez da indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeentzako prestazio espezifikoa.

\* Ez duzu adin-nagusikoa izatearen baldintza bete beharko.

## → LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Aldizkakoa ez den prestazio ekonomikoa, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen oinarriko biziraupen-premiei berehala erantzuteko, eskubidez dagozkien gainerako prestazio ekonomikoa izapidetzen diren bitartean.



### Udalak



- Ez da beharrezkoa genero-indarkeriaren biktimaren egiaztatzea.

\* Jo ezazu udaletxera informazio gehiagorako.

# etxebizitzaren

## EREMUAN

Etxebizitza funtsezko faktorea da indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen errekupeazio-prozesuetan.



Etxebizitza bat eskuratzeko dituzten arazo ugariak eragotzi egiten dute emakumeek erasotzailearekin duten bizikidetzaz uztea. Honako hauek dira etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoetako batzuk:

- Indarkeria jasaten duten emakumeentzako etxebizitzaren irisgarritasun-falta (harrera egiteko baliabideak). Irisgarritasuna da desgaitasuna duten emakumeei berdintasunean, askatasunean, modu independentean bizitzeko eta bizitzaren alderdi guztietan erabat parte hartzeko aukera ematen dien elementuetako bat.
- Gai horretan ez dago desgaitasuna duten emakumeen eskubideei buruzko kontzientziatorik, eta horrek, askotan, emakume horiek instituzionalizatzea eta, ondorioz, haien ingurune komunitariotik irtetea eta laguntza-sareak galtzea dakar.
- Gehiegizko burokratizazioa etxebizitza babestua eskuratzeko izapideetarako.



### ELKARTEAN-EN JARRERA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 62.4 artikuluan, honako hau jasotzen da: “Erregelamenduz ezarritako baldintzetan, EAEko administrazio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak lehentasunezko kolektibotzat hartuko dituzte egoitza publikoetako plazetara sartzeko, baldin eta desgaitasunen bat badute edo 65 urtetik gorakoak badira eta prekaritate ekonomikoan badaude eta horrela egiteko eskatzen badute”.

Hala ere, bermatu egin behar da desgaitasuna duten emakumeek bizilekua aukeratzeko eskubidea izatea, eta beren autonomia mugatzen duten eta bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartzen dituzten kultura-arauek ez eragitea.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura ditzaketan **etxebizitza-arloko baliabideak** ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.



## ETXEBIDE ETXEBIZITZAREN EUSKAL ZERBITZUA



### Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua

<https://www.etxebide.euskadi.eus/hasiera/>



- Egoera ekonomiko ahulean egotea, ondare garbia, sozietateak ez diren aktiboak eta diru sarrera eta errenta maila kontuan hartuta egiaztatzen da.
- Ez da prestazio espezifiko bat indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzat. Baina jasotzeko aukera izanez gero:
  - Etxebiden Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emanda egotea.
  - Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea.
  - Jabetzako etxebizitzarik ez izatea. Kontuan izan salbuespenak daudela, galdetu.
  - Desgaitasunaren egiaztagiria.
  - Biktima-izaeraren egiaztagiria.
  - Erasotzailearekiko bizikidetza amaitu dela egiaztatzea.

- \* *Hauek dira genero-indarkeriaren biktima eta **erosketako etxebizitzaren** eskatzailea izateagatik lor ditzakezun onuretako batzuk:*
  - Etxebizitza soziala erosteko eska daitezkeen gutxieneko diru-sarrerak 3.000 eurora murriztea.
  - Sustapenetan ez egiaztatu behar izatea erroldatuta dagoela.
  - Etxebizitza-premiaren eskakizunari dagokionez, salbuespena ez da automatikoa; Etxebizitza Sailburuordetzari eskatu behar zaio eta onartu egin behar du.
- \* **Alokairuko etxebizitzaren** eskatzaile gisa izena ematen baduzu:
  - 4 puntu gehiago izango dituzu, eta zure eskaera lehentasunezko kupo batean sartuko da, "etxebizitza-premia berezikoa" izenekoan.
  - Izena eman ahal izango duzu, diru-sarrerarik izan ez duzula egiaztatu arren edo eskatutako gutxienera iritsi ez arren.
  - Ez duzu nahitaez erroldatuta egon beharko eskatzen dituzun udalerrietan.
  - Kasu batzuetan, etxebizitza bat jabetzan izan arren, zerbitzu hori eskura dezakezu.
- \* *Harrera-zentro batean bazaude eta etxebizitza bat eskuratzea lortzen ez baduzu, salbuespen gisa eta eskatutako baldintzak betetzen badituzu, alokairuko etxebizitza bat zuzenean esleitzea eska dezakezu.*
- \* *Eusko Jaurlaritzaren programaren bateko alokairuko etxebizitza batean bizi bazara eta arrisku-egoeran zaudela uste bada, aldaketa eska dezakezu.*

## → GENERO-INDARKERIAREN ETA ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO HARRERA-ETXEAK

Aldi baterako ostatu-zerbitzua, gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera baten ondorioz bizitokirik ez izateari aurre egin ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonentzat eta bizikidetz-unitateentzat, betiere pertsona horiek babes-neurririk behar ez badute.



### Udalarena

<https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-gizarte-larrialdiak/web-01-a2gizar/eu/>



- 18 urte baino gehiago izatea.
- Langileen etengabeko presentziarik gabe ostatu-zerbitzu batean eman daitekeen intentsitate txikiko laguntza behar izatea.
- Babes-neurririk behar ez izatea.
- Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.
- Jokabide-nahasmendurik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetz normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez erakustea.
- Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.

\* Doako zerbitzua da, etxeko indarkeriaren biktima izateagatik.



## → INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO EGOITZA-ZENTROAK

### **Berehalako harrera egiteko zentroak**

Berehalako harrera egiteko zerbitzuak edo egonaldi laburrekoak –eguneko 24 ordue-tan, urteko egun guztietan, balia daitezke–, etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeak berehala eta baliabide egokienera bideratu aurretik haien premiak ba-lioesteko behar den denboran harrera egiteko zentroak.

### **Egonaldi ertaineko harrera-zentroak**

Egonaldi ertain edo luzeko harrera-zentroak, babesgabetasun-egoeran daudelako eta osotasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duen egoeran daudelako esku-hartze integral espezializatuagoa behar duten indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben babes- eta bizitoki-eskaerei erantzuteko harrera-zentroak.



### **Foru-aldundiak**

<https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-gizarte-larrialdiak/web-01-a2gizar/eu/>



- 18 urtetik gorako emakumeak edo emakume adingabe emantzipatuak.
- Segurtasun-baldintzetan bizi ahal izateko beste etxebizitzarik ez izatea edo be-rehala eduki ezin izatea.
- Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatu eta/edo iraunkorra behar ez izatea.
- Jokabide-nahasmendurik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetzaren normala larriki nahas dezakeen edota pertsonaren-tzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profe-sionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez erakustea.
- Gaixotasun infektioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat iza-nez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.

# hezkuntzaren

## EREMUAN

Desgaitasuna duten emakumeek hezkuntza-maila baxuagoak dituzte. Zorionez, egoera hori aldatu egin da gizartearen bilakaeragatik eta 16 urte bete arte hezkuntza derrigorrezkoa delako. Horrek aukera ematen die desgaitasuna duten haur eta emakume gazteei prestakuntza jasotzeko, trebatzeko eta etorkizunean lan-arloan garapena izateko.



Hala ere, emakumeok gizartean betetzen dugun rolagatik, emakume izateari eta desgaitasuna duen emakume izateari buruz dugun kontzeptuagatik, ohikoa da desgaitasuna duten neskek eta emakumeek aukera berberak ez izatea eta jasotzen duten orientazioak baliabide espezializatuak aukerak eta ibilbideak bakarrik kontuan hartzea (prestakuntza eta enplegu babestua); horrela, haien gaitasunak eta ahalmenak gutxien dira.

Gizarte honetan nagusi diren aurreiritzi kulturalen ondorioz, desgaitasuna duten emakumeek uste dute gizarteak haientzat gordeta duen lekua etxeko espazioa dela, eta zaintzaren rol tradizionalak bereganatzen dituzte. Hori dela eta, aukera gutxiago dute prestakuntza izateko.

Desgaitasuna duten emakumeek bizitzen ari diren indarkeria matxistako egoeratik irteteko urratsa emateak berekin dakar baliabide ekonomiko propioak izateko beharra, eta hori askotan ez da gertatzen lan merkatuan sartu ezin izan dutelako; edo dibortziatu edo banandu diren emakumeak badira, pentsio bat eskuratzeko aukera galdu dutelako. Hori dela eta, desgaitasuna duten emakumeek ikasketa-bekak eskuratu behar izaten dituzte haien hezkuntza-premiei edo seme-alabak eskolatzeko beharrari erantzun ahal izateko.



### ELKARTEAN-EN JARRERA

Desgaitasuna duten neskatoen eta emakumeen nortasuna, gaitasunak eta trebetasunak ahalik eta gehien garatzen laguntzen dela ziurtatzea, dituzten banakako beharrei eta etorkizunari buruzko itxaropenei erantzunez, prestakuntza-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura ditzaketan **hezkuntza-arloko baliabideak** ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.

## → IKASKETA-ESPEDIENTEA LEKUALDATZEA

Bai ikastetxez aldatu behar duten indarkeria matxistaren biktima diren emakumeena, bai haien seme-alabena.



**Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila**

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>



→ Genero-indarkeriaren biktima izatea.

## → UNIBERTSITATEKO TASAK ORDAINZETIK SALBUESTEA

Genero-indarkeriaren biktimak (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria) eta haien ardurapean dauden eta haiekin batera bizi diren 25 urtetik beherako seme-alabak unibertsitateko zerbitzu akademikoek eragindako prezio publiko orotatik salbuesita egongo dira.



**Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila**

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>



→ Genero-indarkeriaren biktima izatea.

## → HEZKUNTZA-BEKAK

Salbuespenak hezkuntza-beketarako eskakizun akademikoetan, (unibertsitateaz kanpoko ikasketetarako, unibertsitate-ikasketetarako eta goi-mailako beste ikasketa bazuetakarako).



**Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila**

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>




→ Genero-indarkeriaren biktima izatea.

\* *Lanbide-heziketako ikastaroak egiteko bekak bateragarriak dira langabezia-prestazioak eta -subsidioak jasotzearekin.*

# enpleguaren EREMUAN

Desgaitasun fisikoa duten emakumeen kasuan, prestakuntza eta kualifikazio egokirik ez dutenez, lan-merkatuan sartzeko aukera gutxi dute edo ez dute batere aukerarik, eta horrek eragotzi egiten die diru-sarrerak lortzea eta, horrela, independentzia lortzea indarkeria matxistak jasaten dituztenean.



Faktore pertsonalek (gutxiespena, norberaren gaitasunak ez ezagutzea), familia-faktoreek (gehiegizko babesa, familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko zailtasuna, familia-nukleoko beste pertsona batzuek beren diru-sarrerak administratzea) eta gizarte-faktoreek (enplegatzaile askoren aurreiritziak, irudi fisikoaren garrantzia) desgaitasuna duten emakumeen langabezia-tasa handia iraunarazten dute; izan ere, langabezia-tasa handiagoa da desgaitasuna duten emakumeen artean gizonen artean baino.

Zalantzarik gabe, enplegua da indarkeria matxista amaitutzat emateko eta egoera hori bizi duten emakumeen egoera hobetzeko bide aproposena. Besteak beste, lanpostu batek independentzia ekonomiko, sozial, psikiko eta emozional handiagoa edo erabatekoa ematen die; bizilekutik irteteko, erasotzailearekin harremana hausteko eta harreman pertsonalak sustatzeko aukera ematen die; konfiantza eta segurtasuna areagotzen ditu beren buruengan, autoestimua hobetzen du eta prebentzio-mekanismo handi bihurtzen da, etorkizunean indarkeria-egoera errepika ez dadin. Gainera, enplegua edukitzeak familia osoa babesten du, ez dugu ahaztu behar askotan emakumeek hartzen dutela beren gain seme-alaben zaintza eta jagoletza, indarkeria egoera salatu ondoren.



## ELKARTEAN-EN JARRERA

Desgaitasuna duten emakumeek askatasunez aukeratutako edo onartutako lan bat egiteko eskubidea dutela bermatzea, merkatu eta lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan. Eta indarkeriarik gabeko bizimodu independente bat hasi ahal izateko behar dituzten baliabide ekonomikoak bermatzea.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura ditzaketen **enplegu-arloko baliabideak** ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.



## GENERO- ETA SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ESTATUKO ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOAREN LAGUNTZAK

Lanean ari bazara eta genero- edo sexu-indarkeriaren biktima bazara:

- Lanaldia murrizteko eskubidea duzu, soldata proportzionalki murriztuta edo lanaldia berrantolatuta (ordutegia egokitzea, ordutegi malgua).
- Lan-kontratua eteteko eskubidea duzu, kontratua erreserbatuta. Eteteko eskubideak irauten duen bitartean, altaren pareko egoeran egongo zara erretiroaren, ezintasunaren eta abarren ondoreetarako.
- Zure lanpostua behin betiko utzi behar baduzu, lan-kontratua azkentzeko eskubidea duzu.

Azken bi kasuetan, nahigabeko langabezia-egoeratzat hartzen denez, kotizaziopeko prestazioa edo kotizazio-eskasiagatiko subsidioa eskatu eta kobratzeko aukera izango duzu.



### Sepe-Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa



- Erabat langabezian edo lanaldi partzialean egotea.
- Enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea.
- Eskatera gertaera eragilearen datatik 6 hilabeteko epean aurkeztea
- Administrazio eskudunaren, Fiskaltzaren edo epai edo ebazpen judizialaren txostena aurkeztea, genero-indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktima zarelaren egiaztatzen duena.
- Kontribuzio-mailako langabezia-prestaziorako eskubiderik ez izatea.
- Errenta propiorik ez izatea.
- Eskatutako gutxieneko kotizazio-aldia edukitzea:
  - Urtebete baino gehiago lan egin bada: gutxienez 360 egun legezko langabezia-egoeraren aurreko 6 urteetan.
  - Urtebete baino gutxiago lan egin bada: gutxienez 3 hilabete familia-erantzukizunak badituzu, edo gutxienez 6 hilabete familia-erantzukizunik ez baduzu. Nolanahi ere, ez duzu 360 egunera iritsi behar.

\* Indarkeria matxista jasateagatik dituzun eskubideak erabili badituzu, kontratua azkentzea edo diziplinazko kaleratzea baliogabetzat joko dira.

\* RAlren aldi osoa (3 urte) hartu baduzu, ez duzu sorospen hori jasotzeko eskubiderik izango 3 urte igaro arte.

## → LANERATZEKO IBILBIDE PERTSONALIZATUA

Lana bilatzeko banakako arreta eta aholkularitza behar baduzu, LANBIDEk genero-indarkeriaren arloko tutore bat jarriko du zure eskura. Tutore horrek laguntza eskainiko dizu Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) eskaera izapidetzean eta lan-merkatuan sartzeko prestakuntza-ikastaroen ibilbide pertsonalizatuan.



### Lanbide



- Adin nagusiko emakumea edo emakume adingabe emantzipatua izatea.
- Eskabidea egiten den egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea.
- Bizikidetzta-unitate baten barruan egotea, etxebizitza berean bizi diren pertsonekin egon daitezkeen loturak kontuan hartu gabe.
- Premia ekonomikoa izatea.
- Eskubidez dagozkien pentsio eta prestazio publiko guztiak eskatu izana.

## → GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOEN ARLOKO ESKUBIDEAK

Genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima gisa eskura ditzakezun eskubideak, honako egoera hauetakoren batean bazaude.



### Gizarte Segurantzza

#### **BESTEREN KONTURA LAN EGITEN BADUZU**

- Mugigarritasun geografikorako eskubidea, eta enpresak beste edozein lantokitan hutsik duen lanbide-talde bereko edo kategoria baliokideko beste lanpostu bat betetzeko lehentasunezko eskubidea. Enpresak lanpostua gordeko dizu lehen 6 hilabeteetan.
- Lanera ez joateko edo garaiz ez heltzeko eskubidea, indarkeria matxistak eragindako egoera fisiko edo psikologikoaren ondorioz, betiere egiaztatzen baduzu.

\* Jo ezazu zure hitzarmen kolektibora.

### **MODU AUTONOMOAN LAN EGITEN BADUZU**

- Jardueraren ordutegia egokitzeko eskubidea.
- Kontratu-harremana azkentzeko eskubidea.
- Jarduera eteteko eskubidea.

\* *Arau-erreferentzia: 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan Autonomoaren Estatutuarena.*

### **FUNTZIONARIO PUBLIKOA BAZARA**

- Lanerako hutsegiteak, osoak edo partzialak, egiteko eskubidea, justifikatuzat joko dira, arretarako edo osasunerako gizarte-zerbitzuek, kasuan kasu, zehazten duten denboran eta baldintzetan.
- Lanaldia murrizteko eskubidea, ordainsaria proportzio berean murriztuta, edo lan-denbora berrantolatzekeo eskubidea.
- Mugikortasun geografikorako eskubidea.
- Eszedentziarako eskubidea, eszedentzia eskatzeko gutxieneko aldia bete gabe

\* *Arau-erreferentzia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.*

# bizimodu independente- rako laguntzen EREMUAN

Laguntza-sistematizat hartzen ditugu desgaitasuna duten emakumeek eskura ditzaketen baliabide, zerbitzu, programa eta laguntza guztiak, aukera berdintasuneko, diskriminaziorik gabeko eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan bizimodu independente bat garatzeko laguntza edo aukera ematen dietenak: laguntza-iturri izan daitezke desgaitasuna duen emakumea bera, bizikidetzaren ingurunea edo hurbileko pertsonak, komunitatearen baliabide orokorrak eta, hala badagokio, behar dituen zerbitzu espezializatuak.



Kontuan hartu behar da, Gizarte Babeseko Sistemetatik etor daitezkeela (hezkuntza, pentsioak, gizarte-zerbitzuak, osasuna, etab.), eta indarkeria matxista jasaten ari diren eta desgaitasuna duten emakumeen erabateko parte-hartzerako eta gizarte-inklusionarako direla.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak desgaitasuna duten pertsona guztiek baldintza berberetan komunitatean bizitzeko duten eskubidea aitortzen du. Horretarako, neurri eraginkorrak eta egokiak hartuko dira eskubide hori erabat baliatzeko, eta ziurtatuko da haien bizilekua



eta non eta norekin bizi erabakitzeak aukera izango dutela, gainerakoen baldintza berberetan, eta ez direla behartuta egongo bizi-sistema espezifikoko baten arabera bizitzera; etxeko eta egoitzako laguntza-zerbitzuak eta komunitateko beste laguntza-zerbitzu batzuk eskura izatea bermatuko da, baita beren eguneroko bizitza eta komunitatean parte hartzea errazteko eta komunitatetik isolatzea edo bereiztea saihesteko behar den laguntza pertsonala ere; Era berean, ziurtatu egingo da herritarrentzako instalazio eta zerbitzu komunitarioak, oro har, desgaitasuna duten pertsonen eskura egotea, baldintza berberetan, eta haien premiak kontuan hartzea.



## ELKARTEAN-EN JARRERA

Ziurtatzea indarkeria matxistaren biktima diren desgaitasuna duten emakumeek neurri eraginkorrak izango dituztela komunitatean indarkeriarik gabeko bizitza besteen baldintza berdinetan bizitzeko eskubidea erabat gauzatu ahal izateko.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura dituzten **laguntza-baliabideak** ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.

\* Jarraian, indarkeria matxista jasateak eragindako desgaitasun-eta/edo mendekotasun-egoera eskuratzeak zer laguntza izateko eskubidea ematen dizun zehaztuko dizugu.

<https://elkartean.org/pdf/baliabide-gida.pdf>



## GOGOAN IZAN

Zure udalerriko edo auzoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakezu, informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskatzeko.

Era berean, desgaitasuna duten pertsonen ordezkari diren eginaren eginez, elkartu edo fekoor elkarteetara jo dezakezu. Behar izanez gero, laguntza emango dizute, eta, egoera horretan lagungarriak izan daitezkeen baliabideak eskainiko dizkizute.

<https://elkartu.org/>

<https://fekoer.com/>

<https://www.eginez.org/>

## → ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (ELZ)

Mendekotasuna duten edo mendekotasuna izateko arriskua duten eta etxean bizi diren pertsonentzako laguntza-zerbitzua, etxean bertan moldatzeko eta komunitatean parte hartzeko laguntza pertsonalean eta etxeko arretan oinarritua, isolamendu-egoerak saihesteko.



### Udalak

<https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-mendekotasuna-mendekotasun-arriskua/web01-a2gizar/eu/>

\* Gogoratu zerbitzu hau erroldatuta zauden udalean eskatu behar duzula.

## → TELELAGUNTZA

Telelaguntza-zerbitzu bat da, telealarmako komunikazio-gailu batean integratua dagoena, eta erabiltzaileei aukera ematen die arreta iraunkorreko zerbitzu batekin berehala harremanetan jartzeko, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan. Berariaz prestatutako langileek ematen dute zerbitzua, eta behar den arreta mota berehala eskuratzea errazten dute. Zerbitzu honek autonomia eta/edo segurtasun sentimendua indartzen laguntzen du.



### Eusko Jaurlaritzak

<https://www.euskadi.eus/betion-telelaguntza/web01-tramite/eu/>

\* Gogoratu zerbitzu hau erroldatuta zauden udalean eskatu behar duzula.

## → LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (LPPE)

Laguntza ekonomikoa, laguntza pertsonala kontratatzeko gastuak ordaintzen laguntzeko. Laguntza honen helburua da mendekotasun egiaztatua duten pertsonen autonomia bultzatzea (hezkuntzara sarbidea izateko eta/edo lan egin ahal izateko, komunitatean integratu eta parte hartu ahal izateko), eta eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan autonomia handiagoa lortzea.



### Foru-aldundiak

\* Gogoratu prestazio hau eskatzeko mendekotasuna egiaztatuta izan behar duzula, eta arreta eskaintzeko banakako programa aldatu behar duzula zuzenean zure Foru Aldundian edo zure Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez.

## → **FAMILIA GIROAN ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (FGZPE)**

Laguntza ekonomikoa, egiaztatutako mendekotasuna duen pertsona senitarteko batak artatzeak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko.



**Foru-aldundiak**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/837>

- \* *Gogoratu prestazio hau eskatzeko mendekotasuna egiaztatuta izan behar duzula, eta arreta eskaintzeko banakako programa aldatu behar duzula zuzenean zure Foru Aldundian edo zure Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez.*

# EREMU juridikoan

Indarkeria matxista jasaten ari diren desgaitasuna duten emakumeek oztopo ugari dituzte justiziara sartzeko.



Bereziki, desgaitasunari buruz dauden estereotipoak direla eta, eta arrazoizko doikuntzarik eta doikuntza prozesalik ez dagoelako, ez zaie sinesgarritasunik ematen emakume batzuen testigantzei, batez ere komunikatzeko zailtasunak badituzte; ondorioz, haien akusazioak baztertu egiten dira.

Prozedurak aplikatzean agertzen diren jarrera negatiboek indarkeria jasaten ari diren emakumeak beldurtu ditzakete, edo justizia bilatzeko asmoa kendu.

Jarrera horien adibide dira irisgarritasunik gabeko informazio-prozedura korapilatsuak edo umiliagarriak eta gizarte-zerbitzuetara bideratzea baliabide juridikoak eman beharrean, edo poliziaren edo beste ordena-indar batzuen jarrera axolagabea.

Horrek zigorgabetasuna eta arazoaren ikusezintasuna ekar ditzake, eta horrek, aldi berean, indarkeriak luzaroan irautea ekar lezake.

Era berean, litekeena da desgaitasuna duten emakumeek indarkeria-, esplotazio- edo abusu-kasuak salatzeke beldurra izatea, zaintzaileen laguntza gal dezaketelako.



## ELKARTEAN-EN JARRERA

Indarkeria matxistaren biktima diren desgaitasuna duten emakumeei operadore juridikoen eta polizialen arreta egokia bermatzea, emakume bakoitzak une bakoitzean dituen laguntza-beharrak kontuan hartuta.

Errealitate hori kontuan izanda, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren desgaitasun fisikoak duten emakumeek **justiziarako sarbidearen arloan** eskura ditzaketan baliabideak ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.

## → DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA

Doako laguntza juridikoa konstituzio-eskubidea da, eta auzitan aritzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenek laguntza juridikoa jasoko dutela bermatzen du.



**Eusko Jaurlaritz**

<https://www.euskadi.eus/doako-justizia-zertan-datza/web01-a2justic/eu/>



- Ez da genero-indarkeria jasaten ari diren emakumeentzako zerbitzu espezifikoa. Baina jasotzeko aukera izanez gero,
- Ez duzu baliabide ekonomikoen falta egiaztatu beharko.



### **ARABAKO ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUA**

Gasteiz hiribidea 18, 4. solairua (Justizia Jauregia)

Gasteiz

945 004 896



### **BIZKAIKO ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUA**

Barroeta Aldamar 10, beheko solairua (Justizia Jauregia)

Bilbo

944 016 712



### **GIPUZKOAKO ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUA**

Kalkutako Teresa plaza 1, 4. solairua (Justizia Jauregia)

Donostia

943 004 356

## → BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

Doako zerbitzua da, isilpekoa, banakakoa eta pertsonalizatua, salaketa jarri duzun ala ez kontuan hartu gabe, eta honako hauek eskaintzen dizkizu:

- Orientazioa salaketa jarri aurretik, eta jarraipena prozesua amaitu arte.
- Kasu zehatz bakoitzean egin behar duzunari buruz aholkatzea.
- Zure eskubideei buruzko informazioa ematea (doako laguntza juridikoa, laguntza ekonomikoak eta baliabide psikosozialak) eta izapide judizialak egiten laguntzea.
- Laguntza psikologikoa eta soziala, behar baduzu.
- Osasun- eta gizarte-zerbitzuetara bideratzea.
- Epaietara laguntzea.



**Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**

<https://www.justizia.eus/biktimari-laguntzeko-zerbitzua/webjus00-content-gen/eu/>



**BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ) ARABAN**

Gasteiz hiribidea 18, beheko solairua (Justizia Jauregia)

Gasteiz

900180414 - 945004895



**BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ) BIZKAIAN**

Barroeta Aldamar 3, beheko solairua (Justizia Jauregia)

Bilbo

900400028 - 944016487



**BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ) GIPUZKOAN**

Kalkutako Teresa plaza 1, 1. solairua (Justizia Jauregia)

Donostia

900100928 - 943000768



## **GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARLO JUDIZIALEAN LAGUNTZEKO PROGRAMA - ZUREKIN**

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arlo judizialean laguntza integrala emateko programa pilotua. Zurekin programak lotura estua du Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin; azken zerbitzu horrek ebaluatzen baitu laguntza egokia den, eta, hala badagokio, Zurekin programa aktibatzea ahalbidetzen du.



**Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**

[https://www.euskadi.eus/contenidos/plan\\_departamental/programa\\_zurekin\\_2019/eu\\_def/adjuntos/ZUREKIN\\_eusk-BEHIN-BETIKOA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/programa_zurekin_2019/eu_def/adjuntos/ZUREKIN_eusk-BEHIN-BETIKOA.pdf)


- \* Zurekin zerbitzua honako bide hauetakoren baten bidez aktibatu edo eska daiteke:
  - Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ) laguntzen egokitasuna baloratzen du, emakumearen zaurgarritasuna eta inguruabar espezifikoak kontuan hartuta.
  - Talde psikosozial judizialeatik eta Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateetatik.
  - Emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegietatik, zigor-arloko epaitegietatik edo probintzia-auzitegitik.

 **BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ) ARABAN**

Gasteiz hiribidea 18, beheko solairua (Justizia Jauregia)

Gasteiz


900180414 - 945004895

 **BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ) BIZKAIAN**

Barroeta Aldamar 3, beheko solairua (Justizia Jauregia)

Bilbo

900400028 - 944016487

 **BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ) GIPUZKOAN**

Kalkutako Teresa plaza 1, 1. solairua (Justizia Jauregia)

Donostia

900100928 - 943000768

→ **ARRETA SOZIOJURIDIKOKO ZERBITZUA**

Emakumeen aurkako indarkeria matxista jasateak eragindako aholkularitza soziojuri-  
dikoko beharrei erantzuten die, indarkeria zein eremutan gertatu den kontuan hartu  
gabe.



**Foru-aldundiak**



## ARABA

### HEGOAK orientazio juridikoa:

<https://web.araba.eus/eu/gizarte-zerbitzuak/emakumeen-aurkako-indarkeria-aurretiko-hitzordua>

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen espezializatutako gizarte-zerbitzua da, publikoa eta doakoa.



### Zer eskaintzen du:

- Orientazio juridikoa: emakumeen eskubideei buruzko informazioa eta eskubide horiek gauzatzeko baliabideak.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntza soziojuridikoa ematea, bai prozesuaren aurretik, bai prozesuaren jarraipenean.
- Dokumentuak idazten laguntzea, abokatuaren laguntza behar den kasuetan.



### Tokia:

Zerbitzua Arabako udalerrri hauetan ematen da: Amurrio, Guardia, Laudio, Oion eta Gasteiz.



### Nola eskuratu:

Zuzenean eska dezakezu hitzordua  
945 151 015/945 124 892, 08:30etik 14:30era  
edo zure Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez (kasu honetan bideratze-txostena beharko duzu).



### Baldintzak:

- Borondatez joatea.
- Araban bizitzea.
- Ez duzu salaketarik jarri behar.
- Esku-hartzearekin konpromisoa izatea





## BIZKAIA

### Arreta soziojuridikoko zerbitzua:

<https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/1806>

Tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko gatazkak prebenitu eta arintzea helburu duen zerbitzua da.



### Nola eskuratu:

Zuzenean Clara Campoamor Elkartera deituta, hitzordua emateko.  
94423 91 55



### Baldintzak:

- Tratu txarren biktima izatea. Gogoan izan zure guraso-ahalaren edo zaintza eta jagoletzaren pean dauden seme-alabak ere barne hartzen dituela.
- Edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima izatea.



## GIPUZKOA

### Arreta sozio-juridikoa indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/1736>

Orientazio juridikoko zerbitzua da, eta indarkeria matxistak eragindako egoerei eta sexu-askatasunaren aurkako ekintzei aurre egiteko eta konpontzeko informazioa eta orientazioa ematen ditu, zein eremutan gertatu diren kontuan hartu gabe.



#### Zer eskaintzen du:

- Epaiketaren aurreko informazioa eta aholkularitza juridikoa ematea, familia-zuzenbidearen eta zigor-zuzenbidearen alorrean.
- Aholkularitza juridikoa ematea emakumeak hainbat epaiketa judizial irekita dauzkan eta koordinatzeko beharra ikusten den egoeretan.
- Aholkularitza eta, hala badagokio, jarraipen juridikoa ematea, orientazioa eta laguntza beharrezkoak diren ahultasun-, larritasun- eta premia-egoera berezietan.



#### Nola eskuratu:

Zerbitzu honek aurrez aurreko arreta baino ez du, zure udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.




#### Baldintzak:

- Indarkeriaren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima den edo izan den emakumea, betiere aztarna oinarridunak daudenean.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizitzea.

# laguntza psikologikoaren

## EREMUAN

Indarkeria matxista luzaroan eta edozein modutan jasateak, intentsitate handikoa edo txikikoa izan, kalte fisiko, psikologiko eta sozial ugari eragiten dizkie emakumeei.



Tratu txar kronikoa maila horietan guztietan jasateak ondorio suntsitzai-  
leak izan ditzake tratu txar horien biktima diren emakumearen erregulazio  
emozionalean.

Bizitako eta jasandako indarkeriak, zalantzarik gabe, ondorio oso gogo-  
rrak eta iraunkorrak ditu batzuetan, osasun fisikoan, osasun mentalean eta  
osasun psikologikoan.

Askotan, emakumeek trauma osteko stres-egoerak eta/edo beste asal-  
dura kliniko batzuk izaten dituzte, hala nola depresioa, antsietatea, depre-  
sio sintomak, joera suizidak, autoestimua baxua, erru sentimenduak, etab.

Kontuan hartu behar dira tratu txarren ondorioz kalte fisikoak edo des-  
gaitasun bat hartzeak dakartzan ondorio psikologikoak, horiek ere landu  
behar izaten baitira arlo psikologikoan. Ez ditugu ahaztu behar bizitako  
indarkeriaren ondorioz desgaitasuna hartu duten emakumeak.



### ELKARTEAN-EN JARRERA

Desgaitasun fisikoa duten eta indarkeria matxistak jasaten dituzten emakumeei ahaldu-  
ntze-pro-  
zesuari ekiteko aukera ematea, bizitzen ari diren egoera ulertu ahal izateko, indarkeriarik gabe-  
ko bizitza lortze aldera.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista ja-  
saten ari diren desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura ditzaketan  
**laguntza psikologikoaren arloko baliabideak** ezagutzea, indarkeriarik  
gabeko bizitza hasi ahal izateko.

## → **EMAKUMEEN ETXEAK**

EAEEn, indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzako laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa eta soziala eta aisialdiko eta prestakuntzako jarduerak eskaintzen dituzten Emakumeen Etxeak daude.

## → **LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUAK**

EAEko hiru foru-aldundiak doako terapiak eskaintzen dizkiete indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeei. Terapia horien artean, banakako arreta psikologikoa, taldeko terapia eta indarkeriaren ondorio psikologikoak tratatzeko tailer espezifikoak daude.



**Foru-aldundiak**



## ARABA

### Biktimentzako arreta psikologikoa – HEGOAK

<https://web.araba.eus/eu/gizarte-zerbitzuak/emakumeen-aurkako-indarkeria-aurretiko-hitzordua>

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen espezializatutako gizarte-zerbitzua da, publikoa eta doakoa.



#### Zer eskaintzen du:

- Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta psikosoziala, indarkeria hori eta zer egoeratan gertatzen den identifikatzeko.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, gaitasun emozionalak indartzeko eta indarkeria matxistari aurre egiteko trebetasunak eskuratzeko.
- Laguntza psikosoziala erabakiak hartzeko prozesuan, indarkeria matxistari aurre egiteko prozesu pertsonaletan eta autonomia pertsonalaren garapenean.
- Indarkeriaren esperientzia traumatikoak eragindako kalte psikologikoa konpontzeko esku-hartze terapeutikoa.



#### Tokia:

Zerbitzua Arabako udalerrri hauetan ematen da: Amurrio, Guardia, Laudio, Oion, Agurain eta Gasteiz.




#### Nola eskuratu:

Hitzordua eska dezakezu zuzenean 945 151 015 / 945 124 892 telefonoetara deituta, 08:30etik 14:30era, edo zure Udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez (kasu honetan bideratze-txostena beharko duzu).



#### Baldintzak:

- Borondatez joatea.
- Araban bizitzea.
- Ez duzu salaketarik jarri behar.
- Esku-hartzearekin konpromisoa izatea.



## BIZKAIA

### Indarkeria matxistaren biktimei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua – ESNATU

<https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/1807>

Doako laguntza psikologiko espezializatua emateko zerbitzua, indarkeria matxista eta sexualaren biktima diren emakumeentzat.



#### Zer eskaintzen du:

- Diagnostikoa eta balorazioa.
- Banakako arreta psikologikoa.
- Taldeko laguntza psikologikoa, banakako arreta osatzeko.
- Artatutako kasuen jarraipena.
- Tratututako kasuen ebaluazioa.



#### Tokia:

Zerbitzua Bizkaiko udalerrri hauetan ematen da: Markina-Xemein, Zalla, Ugao-Miraballes, Durango, Gernika, Igorre, Bermeo, Portugalete, Leioa eta Getxo.



#### Nola eskuratu:

Arreta zuzena, 94 662 05 05 telefonoan hitzordua eskatuta.



## GIPUZKOA

### Banaka eta taldeka laguntza psikologikoa emateko zerbitzua.

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizartepolitika/kolektiboak/indarkeria-matxistaren-biktimak>

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten eta afekzio psiko emozionalak dituzten eta eguneroko ekintzak aurrera eramateko mugak dituzten emakumeei zuzendutako zerbitzua da.



#### Zer eskaintzen du:

- Tratamendu psikologikoa, banakako arreta pertsonalizatuaren bidez.
- Ikuspegi feminista eta emakume hauen ahalduntzea babesten duen ikuspegia.
- Indarkeriaren ondoriozko premia psikoemozionalei heltzea gertatu den eremua alde batera utzita.



#### Tokia:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu bat da.




#### Nola eskuratu:

Herritarren Informazio eta Arretarako Bulego Nagusian, telefono honetara deituta 943112 111 (astelehenetik ostiralera, 8: 00etatik 15:00etara), helbide honetara mezu elektronikoko bat bidalita: [info@gizarteekintza.eus](mailto:info@gizarteekintza.eus) edo hurrengo helbidean aurrez aurreko hitzordua eskatuta: txara IIn (Zarategi pasealekua 99, Donostia Sebastian)( astelehenetik ostiralera, 8: 30etik 14:00etara)

# larrialdietako zerbitzuen EREMUAN

Emakumeen aurkako indarkeria matxista mundu mailako arazoa da, eta adin, arraza, erlijio eta egoera fisiko guztietako emakumeei eta neskei eragin diezaieke.



Indarkeria jasaten duten emakumeek emakumeei laguntza emateko eskura dauden gizarte-larrialdietako zerbitzuen esku-hartzea eska dezakete. Babesleku segurua, babes juridiko eta/edo psikologikoa edo emakumeei erreparazioan eta gizarteratzean laguntzeko programak aurkitzeko laguntza ematen dute.

Premiazko egoeretan eskura dauden baliabideek erantzun azkar eta eraginkorra eman nahi diete indarkeriaren biktima izan diren emakumeei, bai eta haien seme-alaba adingabeei ere, osasun- eta gizarte-zerbitzuak, laguntza juridiko eta psikologikoa, polizia- ren babesa eta larrialdietako bizitokia koordinatuz.



## ELKARTEAN-EN JARRERA

Irisingarritasun unibertsalaren printzipioa bermatzea indarkeria matxista jasan duten emakumeen eskura dauden larrialdietako baliabide eta zerbitzu guztietan.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren desgaitasun fisikoa duten emakumeek eskura ditzaketen **larrialdietako zerbitzuen eremuko baliabideak** ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.



## → GIZARTE LARRIALDIETAKO FORU ZERBITZUA

Foru-eskumeneko zerbitzua da. Zerbitzuak urteko egun guztietan funtzionatzen du (egunean 24 orduz), eta berehala arreta ematen die hiru lurralde historikoetan gertatzen diren gizarte-larrialdiko egoerei.

Zerbitzu honetan prestazio hauek jaso ditzakezu:

- Informazioa.
- Beharren eta jarraipenaren hasierako balorazioa.
- Diagnostikoa.
- Orientazioa.
- Gizarte-laguntza
- Esku-hartze psikosoziala, bereziki emozioei eusteko.
- Behar izanez gero: Garraioa. Mantenua. Larrialdietako bizitokia.



### Foru-aldundiak



→ Gerora sortutako babesgabetasun-egoera batean egotea, hala nola genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima izanez gero.

\* Baliabide honek ez du adin-mugarik. Eskatuko den baldintza bakarra preskripzio teknikoa da.

#### **ARABAKO GIZARTE LARRIALDIETAKO FORU ZERBITZUA**

San Antonio 10, beheko solairua,  
Gasteiz  
092 - 945 161 210

#### **BIZKAIKO GIZARTE LARRIALDIETAKO FORU ZERBITZUA**

Ugasko, 3-2  
Bilbo  
900 840 977

#### **GIPUZKOAKO GIZARTE LARRIALDIETAKO FORU ZERBITZUA**


Zarategi pasealekua 99,  
Donostia  
943 112 111

## → GIZARTE LARRIALDIETAKO UDAL ZERBITZUA

Udalaren eskumeneko baliabidea da. Zerbitzu honek berehalako arreta eskaintzen du gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeretan: erasoak, tratu txarrak, indarkeria matxista...



### Udalak

 **GASTEIZKO GIZARTE LARRIALDIETAKO UDAL ZERBITZUA**

San Antonio Kalea, 12  
Vitoria-Gasteiz  
945 16 12 10

 **BILBOKO GIZARTE LARRIALDIETAKO UDAL ZERBITZUA**

Uribitarte Kalea, 11  
Bilbao  
944 70 14 60

 **DONOSTIAKO GIZARTE LARRIALDIETAKO UDAL ZERBITZUA**

Easo Kalea, 41-43, PASADIZO  
Donostia-San Sebastián  
943 48 38 49

# sexu- indarkeriaren

## EREMUAN

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du sexu-indarkeria: "sexu-ekintza oro, sexu-ekintza bat gauzatzeko ahalegina, nahi ez diren iruzkin edo intsinuazio sexualak, edo pertsona baten sexualitatea merkaturatzeko edo beste edozein modutan erabiltzeko ekintzak, beste pertsona batek derrigortuta, pertsona horrek biktimarekin duen harremana edozein dela ere, edozein eremutan, etxean eta lantokian barne".



Hertsapenaren barruan, hainbat indar-maila, larderia psikologikoa, estorsioa eta mehatxuak (adibidez, kalte fisikoa egiteko mehatxua edo lanik edo kalifikaziorik ez lortzeko mehatxua, etab.) erabil daitezke.

Sexu-indarkeriatzat hartzen da, halaber, pertsona ez badago baimena emateko moduan, adibidez, mozkortuta dagoenean, estupefaziante baten eraginpean dagoenean, lo dagoenean, etab.

Desgaitasuna duten emakumeek zaugarritasun handiagoa dute sexu-indarkeriaren aurrean, hainbat faktore konbinatzen dituztelako, hala nola zaintzaileekiko mendekotasuna, laguntza-zerbitzuak eskuratzeko ezintasuna, desgaitasunari lotutako diskriminazioa eta estigmak. Egoera horiek, beraz, arrisku izaugarrian jartzen dituzte, desgaitasunik gabeko emakumeekin alderatuta.



### ELKARTEAN-EN JARRERA

Desgaitasuna duten emakumeen aurkako sexu-indarkeriari heltzeko, ikuspegi aldeaniztuna behar da, hezkuntza, zerbitzuetarako sarbidea, lege-babesa eta inklusioa eta errespetua lortzeko kultura-aldaketa barne hartzen dituena. Funtsezkoa da emakume horien behar espezifikoko aitortzea eta horiei erantzutea, haien segurtasuna eta ongizatea bermatzeko.

Errealitate hori kontuan hartuta, ezinbestekoa da indarkeria matxista jasaten ari diren desgaitasun fisikoa duten emakumeek **sexu-indarkeriaren eremuan** eskura ditzaketan baliabideak ezagutzea, indarkeriarik gabeko bizitza hasi ahal izateko.

## → SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA INTEGRALEKO ZERBITZUAK

Zuzeneko sarbidea duten doako zerbitzuak, sexu-indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren biktima guztiei eta bizirik irten diren emakume guztiei laguntza emateko.



### Diputaciones Forales



→ Ez dago baldintza administratiborik bete beharrik. Eskatuko den baldintza bakarra preskripzio teknikoa da.



**ARABA**

**Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta integrala emateko TXIME-  
LETAK zentroa**

 <https://tximeletak24h.araba.eus/eu/home>

 **650 801 080**

Zerbitzu publikoa eta doakoa da, eta arreta espezializaturik ematen du urteko 365 egu-  
netan eta 24 orduz, sexu-indarkeriaren biktima izan diren eta iraganean sexu-indar-  
keria jasan zuten emakumeentzat. Larrialdietan eta/edo krisialdietan ere ematen da  
zerbitzua.



**Zer eskaintzen du:**

- Informazioa.
- Lehen laguntzak.
- Laguntza psikologikoa.
- Gizarte-arreta.
- Laguntza juridikoa.
- Lagun egitea.
- Joan-etorriak.



## BIZKAIA

### Sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzua

 <https://www.bizkaia.eus/eu/zerbitzuak-de-arreta/hasiera>

 **900 840 977**

Iraganean sexu-indarkeria jasan zuten edo gaur egun sexu-indarkeria jasan duten biktime eta bizirik irten diren guztiei laguntza edo esku-hartze psikologikoa eta soziala emateko zerbitzua (aurrez aurre, online eta telefonoz), baita behar duten senideei edo biktimaren ingurune intimoko pertsonei ere (lagunak...), urteko egun guztietan 24 orduz irekita dagoen zentro baten eta suspertze integraleko zerbitzuen bidez.



#### Zer eskaintzen du:

- Informazioa eta aholkularitza 24 orduz / 365 egunez.
- Sexu-indarkeriari buruzko sentsibilizazioa.
- Sexu-indarkeria zaintzeko sistemak Bizkaian.
- Larrialdi-egoeretan esku hartzea 24 orduz / 365 egunez.
- Lagun egitea.
- Banakako laguntza psikologikoa.
- Aholkularitza sozio-juridikoa.
- Gizarte-arreta.
- Garraioa.
- Ostatu hartzeko aldi baterako laguntza larrialdi-egoeretan.



## GIPUZKOA

### Sexu Indarkeriari Arreta Integrala emateko Foru Zerbitzua

 <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/saivvs>

 **900 840 188**

Espazio segurua eta konfidentziala da, eta urteko egun guztietan 24 orduz arreta ematen die, bai orain edo iraganean munduko edozein lekutan sexu-indarkeria jasan duten emakumeei, salaketa jarri duten ala ez kontuan hartu gabe; bai eta sexu-indarkeria bizi izan duen eta egoera horrek eragin dion emakume baten senideei edo hurbileko pertsoneri ere.

#### **Zer eskaintzen du:**

- Informazioa eta aholkularitza 24 orduz, urteko egun guztietan.
- Aurrez aurreko arreta, telefono bidezkoa, txat edo Whatsapp bidezkoa.
- Berehalako arreta integrala.
- Arreta psikologikoa.
- Arreta eta orientazio juridikoa.
- Gizarte-arreta.
- Laguntza profesionala: eremu polizialean, judizialean, sanitarioan edo bestelakoetan.
- Sexu-indarkeriari buruzko sentsibilizazioa.

# Eranskina I

ERREFERENTZIAK



- Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarrekin Koordinatzailea  
[www.elkartean.org](http://www.elkartean.org)
- Gutxitasun Fisikoa eta Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea  
<https://fekoora.com/>
- Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea  
<https://elkartu.org/gipuzkoako-desgaitasun-fisikoa-duten-pertsonen-federazio-koordinatzailea>
- Arabako Desgaitasuna duten Pertsonen Elkarrekin  
<https://www.eginez.org/eu/>
- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa  
[https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia\\_euskaraz\\_eskubideak/es\\_def/adjuntos/Pertsona\\_desgaituen\\_eskubideei\\_buruzko\\_Konbentzioa.pdf](https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_eskubideak/es_def/adjuntos/Pertsona_desgaituen_eskubideei_buruzko_Konbentzioa.pdf)
- Emakumearen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestak (2019).  
[https://violenciagenero.igualdad.gob.es/wp-content/uploads/Macroencuesta\\_2019\\_estudio\\_investigacion.pdf](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/wp-content/uploads/Macroencuesta_2019_estudio_investigacion.pdf)
- Erabakia, 2021eko azaroaren 11koa, Berdintasunerako Arloko Biltzarrena, genero indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzkoa.  
<https://www.boe.es/boe/dias/2021/12/13/pdfs/BOE-A-2021-20570.pdf>
- Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonentzako Baliabideen Gida.  
<https://elkartean.org/pdf/baliabide-gida.pdf>
- Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzua  
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizartepolitika/kolektiboak/indarkeria-matxistaren-biktimak>
- Indarkeriaren biktimak izan diren emakumei arreta emateko Arabako Foru Aldundiaren zerbitzua  
<https://web.araba.eus/eu/igualdad-cooperacion-interculturalidad/igualdad/violencia-machista>
- Indarkeriaren biktimei arreta emateko Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzua  
[https://www.bizkaia.eus/eu/arreta-indarkeriaren-biktimentzat?Tem\\_Plid=7991897](https://www.bizkaia.eus/eu/arreta-indarkeriaren-biktimentzat?Tem_Plid=7991897)
- Eusko Jaurlaritza  
<https://www.euskadi.eus/hasiera/>
- LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua  
<https://www.lanbide.euskadi.eus/hasiera/>

- > 14/2022 LEGEA, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.  
[https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi\\_normativa/eu\\_def/adjuntos/14\\_22\\_legea.pdf](https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_normativa/eu_def/adjuntos/14_22_legea.pdf)
- > Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua.  
<https://www.etxebide.euskadi.eus/hasiera/>
- > Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.  
<https://www.euskadi.eus/eusko-jauraritzza/hezkuntza-saila/>
- > SEPE-Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.  
<https://www.sepe.es/HomeSepe/>  
<https://www.sepe.es/HomeSepe/es/Personas/distributiva-prestaciones/quiero-cobrar-el-paro-soy-victima-de-violencia-de-genero-o-domestica.html>
- > 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan Autonomoaren Estatutuarena.  
<https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-13409-consolidado.pdf>
- > 5/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.  
<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-11719-consolidado.pdf>
- > Doako Laguntza Juridikoa  
<https://www.euskadi.eus/doako-justizia-zertan-datza/web01-a2justic/eu/>
- > Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ).  
<https://www.justizia.eus/biktimari-laguntzeko-zerbitzua/webjus00-contentgen/eu/>
- > Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zerbitzu espezializatua  
<https://www.euskadi.eus/informazioa/genero-indarkeriaren-biktima-diren-emakumeentzako-zerbitzu-espezializatua/web01-a2gizar/eu/>
- > Sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzua  
<https://tximeletak24h.araba.eus/eu/home>
- > Sexu Indarkeriari Arreta Integrala emateko Foru Zerbitzua Gipuzkoan.  
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hariberria/>
- > Sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko zerbitzua Bizkaian.  
<https://www.bizkaia.eus/eu/zerbitzuak-de-arreta/hasiera>
- > Indarkeria matxistak eragindako babesgabetasuna baloratzeko zerbitzua.  
[https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12470?Tem\\_Plid=7995045](https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12470?Tem_Plid=7995045)
- > Arreta psikosozial anbulatorioa  
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizartepolitika/kolektiboak/indarkeria-matxistaren-biktimak>

- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua  
<https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-mendekotasuna-mendekotasun-arriskua/web01-a2gizar/eu/>
- Arlo komunitarioko esku hartze psikosozialeko eta/edo psikoedukatiboko zerbitzua  
<https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12399>
- Indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen egoerei arreta psikosoziala, gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta eta arreta soziojuridikoa emateko zerbitzua - GARAITU  
<https://edefundazioa.org/zerbitzuak/garaitu-zerbitzu-gipuzkoa/?lang=eu>
- Ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa  
<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/genero-indarkeria-biktimak-laguntzak/web01-a2gizar/eu/>
- Gizarte-larrialdietarako laguntza  
<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/gizarte-larrialdietarako-laguntzak-gll-2024/web01-tramite/eu/>
- Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeak eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak  
<https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-gizarte-larrialdiak/web01-a2gizar/eu/>
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua  
<https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-mendekotasuna-mendekotasun-arriskua/web01-a2gizar/eu/>
- Telelaguntza  
<https://www.euskadi.eus/betion-telelaguntza/web01-tramite/eu/>
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa  
<https://www.donostia.eus/info/udalinfo/tramites.nsf/vTramites/0592287815A31BB2C125814500390C86?OpenDocument&idioma=eus&id=D580485>
- Familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa  
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/837>
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arlo judizialean laguntzeko programa - ZUREKIN  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/plan\\_departamental/programa\\_zurekin\\_2019/eu\\_def/adjuntos/ZUREKIN\\_eusk-BEHIN-BETIKOA.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/programa_zurekin_2019/eu_def/adjuntos/ZUREKIN_eusk-BEHIN-BETIKOA.pdf)

# Eranskina II

JARDUNBIDE EGOKIAK

## → TARTEKARI SAREA

Programa berritzailea da, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatua, eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten laguntzea du helburu, sentsibilizatzeko, prebenitzeko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak erakartzeko eta haiei hasierako laguntza emateko ekintzen bidez.

Gure ustez, jardunbide egokia da, eta beraz, Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoetan ere egon beharko litzateke programa hau.

\* Informazio gehiago nahi izanez gero, sar zaitetz esteka honetan:

<https://tartekarisarea.org/>





ASOCIACIÓN COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE EUSKADI